

JARDUERA-PLANA: 2. BERTSIOA

(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

Kalkulu aurreratua eta zenbakizko analisia

AUTOMOBILGINTZA

Irakasgaiaren koordinatzailea
M^a Concepción Besga Armas

2020ko Apirilak 16

AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko eta ez-ohiko deialdia: orientabideak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

22. astean lantzeaz dauden eduki teoriko-praktikoak hurrengoak dira:

Magistraletan eta mintegietan:

- **3.GAIA. EKUAZIO LINEALETAKO SISTEMAK**
- **4.GAIA. EKUAZIO EZ-LINEALAK**
- **5.GAIA. AUTOBALIOAK ETA AUTOBEKTOREAK**
- **6.GAIA. ZENBAKIZKO INTEGRAZIOA**

Ordenagailu praktikaketan:

- **OP3 - Interpolazioa**
- **OP4 - Ekuazioak**
- **OP5 – Ekuazio ez linealak – integrazioa**

Eta jarduera plan honetan modalitate ez-presentzial lantzeko egokitzapenak definitzen dira.

2. METODOLOGÍA

Klase magistralak, mintegiak eta ordenagailu praktikak Blackboard Collaborate tresnarekin ta egelan eskuragarri jartzen diren baliabideekin garatuko dira, ohiko ordutegian. Jarduera hauetan 1. Atalean jasotako eduki teoriko-praktikoak landuko dira, hurrengo egutegiarekin:

- 22-24. asteak: ordenagailu praktikak.
- 25-29k astea: Teoria eta ariketak.
- 29. astea: ordenagailu praktikak (3h).
- 30. astea: Teoria eta ariketak.

Hurrengo ordutegia izanda:

1. maila	Kalkulu aurreratua eta zenbakizko analisia					Ordutegia
	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	NOTAS

10:00-11:00		KLASE	T.- A.Z.			Klaseak eta tutoretzak online dira hurrengo oharra arte
11:00-12:00		T.- A.Z.				KLASE .- PO.- (Martxoak 9-27 eta 3 ordu maiatzan) Ander Zorno
12:00-13:00	KLASE	T.- A.Z.	KLASE			KLASE .-M o S.- (Besteak) Ander Zornoza
13:00-14:00	T.- A.Z.	T.- A.Z.	KLASE			
14:00-15:00	T.- A.Z.					T.-A.Z.= Ander Zornoza Tutoretza

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

Irakasgai honek ez du ikasgelako klase praktikorik. Klase magistralak Blackboard Collaborate tresnarekin ta egelan eskuragarri jartzen diren baliabideekin garatuko dira, ohiko ordutegian. Jarduera hauetan 1. Atalean jasotako eduki teoriko-praktikoak landuko dira.

Tutoretzak BBC saioak irekiz egingo dira. Horretaz gain, posta elektronikoa ere erantzungo da ikasleei tutoretzatan. Horrela ikasleekin komunikazio ireki bat ezarriko da, dituzten dudak eta zalantzak galdetzeko, klase ez-presentzialak jarraitu ditzaten.

2.2 MINTEGIAK

Mintegiak Blackboard Collaborate tresnarekin ta egelan eskuragarri jartzen diren baliabideekin garatuko dira, ohiko ordutegian. Jarduera hauetan 1. Atalean jasotako eduki teoriko-praktikoak landuko dira. Horrela eta ikasleekin kontaktuan egonda, ikasleak bideratuko ditugu proposatzen diren ariketak egin ditzaten, era berean dudak galdetzeko komunikazioa egongo da.

2.2. ORDENAGAILU PRAKTIKAK

Ordenagailu praktikak berriz estrukturatu eta planifikatu dira, Blackboard Collaborate (BBC) tresnarekin eta egelan eskuragarri jartzen diren baliabideekin garatzeko, ohiko ordutegian. Jarduera hauetan 1. Atalean jasotako eduki teoriko-praktikoak landuko dira. Praktika bakoitzaren aurretik materiala eskura izango dute egelan era ez presentzialean lantzeko.

Gainera, BBC saioak programatu dira zalantzak galdetzeko eta irakasleak praktiken garapena bideratzeko.

3. EBALUAZIO SISTEMAK

IRAKASKUNTZA-GIDAN DAGOEN EBALUAZIOA

I) EBALUAZIO JARRAITUAREN SISTEMA

Azken kalifikazioa honela banatuko da:

Ordenagailuko praktikak, % 30, lauhilekoan zehar egindako gainerako jarduerak, %40 eta deialdiaren azterketen garaian egingo den proba idatzia, % 30.

Irakasgaia gainditzeko, atal guztiak gainditzea eskatuko da. Horrela ez bada, azken kalifikazioa proba idatziaren nota gehi ordenagailuko praktiken nota izango da.

Ikasleen ebaluazioko araudi erregulatzaillearen arabera (BOPV-EHAA 13/3/17), ebaluazioa jarraitua da eta azken ebaluazioaren sistema hartu nahi izatekotan, ikasleak ebaluazio jarraituaren sistemari uko egiteko, dagokion irakasleari eskaera idatzia aurkeztu behar dio lauhilekoko lehenengo 14 asteetan.

II) AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA

Azkeneko ebaluazioko sisteman azkeneko proba zati desberdinetan banatuta egon daiteke, kurtsoan zehar lortutako ahalmenak zeregin desberdinen bitartez (adibidez: idatzitako azterketa, ordenagailu-proba,...) ebaluatu ahal izateko. Probak kalifikazioaren % 100 balioko du.

Bi ebaluazio-sistemetan, azken proba idatzira ez aurkezteak kalifikazioan "Ez aurkeztua" lortzea suposatzen du, nahiz eta kurtsoan zehar planteatutako lanetan parte hartu izana.

Idatzizko frogetan kalkulagailu ez programagarria erabil daiteke.

Ebaluazio jarraituan planifikatuak zeuden ebaluazio jarduerak hauek dira:

- Jarduerak: 7 puntu
 - 3 puntu OP (3 Jarduera)
 - 2020ko martxoak 4 (OP1 eta OP2).
 - 2020ko apirilak 1.
 - 2020ko maiatzak 6 (Geratu diren praktikak).
 - 3 puntu gainerako jarduerak edo/eta kontrolak (2 kontrol)
 - 1. Kontrola 2020ko martxoak 9, 8:00-10:00.
 - 2. Kontrola 2020ko maiatzak 4, 8:00-10:00.

- Bestelako jarduerak klasean egingo dira, mintegietan.
- 1 puntu teoria
 - Azterketa finalean galdetuko da (Maiatzak 26, 9:00)
- Azterketa finala: 3 puntu (+1 puntu teoria).
 - (Maiatzak 26, 9:00)

EGOERA HONETAN EGINGO DIREN EBALUAZIO JARDUERAK

Dugun egoera berezia kontutan hartuta, geratzen diren ebaluazioa ezingo da era presentzialean egin eta modu ez-presentzialean egingo da. Frogaren bat era presentzialean egin badaiteke, ikasleei denborarekin jakinaraziz. Beraz, ebaluazio ez-presentzial hau nola egingo den deskribatzen da jarraian.

I) EBALUAZIO JARRAITUAREN SISTEMA

Azken kalifikazioa honela banatuko da:

- 3 puntu ordenagailuko praktikak. Dagoeneko PO1 eta PO2 praktikei zegokien azterketa martxoak 4 eta 5ean izan zen. Gainontzeko praktikak maiatzaren 12-an goienaz entregatuko den lan batekin ebaluatuko da.
- 3 puntu lauhilekoan zehar egindako kontrolak. Lehenengo kontrola dagoeneko martxoaren 9an egin zen lehenengo bi gaiei buruz. Bigarren kontrola maiatzaren 4an izango da, eta momentu horretaraino ikusitakoa sartuko da.
- 4 puntu eta deialdiaren azterketen garaian egingo den ariketa eta teoria froga, maiatzaren 26an.

Irakasgaia gainditzeko, atal guztiak gainditzea eskatuko da. Hala bada, kalifikazio finala hiru puntuazioen batura izango da.

Oharrak:

- Ordenagailuen praktikak eta kontrolak gainditu dituzten ikasleek, maiatzaren 26an bakarrik ariketa eta teoria froga egin beharko du (notaren 4 punturako). Ikasleek honetan ez dute ebaluazio jarraituari uko egin behar notak gordetzeko.
- Ordenagailuen praktikak gainditu dituzten baina kontrolak gainditu ez dituzten ikasleek, maiatzaren 26an bakarrik ariketa eta teoria froga egin beharko du (notaren 7 punturako). Ikasleek honetan ez dute ebaluazio jarraituari uko egin behar ordenagailuen praktiken notak gordetzeko.
- Ordenagailuen praktikak gainditu ez dituzten baina kontrolak gainditu dituzten ikasleek, maiatzaren 26an ariketa eta teoria froga egin beharko du (notaren 4

punturako) eta ordenagailu praktiken froga edo lan bat egin beharko du maiatzaren 26an (notaren 3 punturako). Ikasleek honetan ez dute ebaluazio jarraituari uko egin behar kontrolen notak gordetzeko.

- Ordenagailuen praktikak gainditu ez dituzten eta kontrolak gainditu ez dituzten ikasleek, maiatzaren 26an ariketa eta teoria froga egin beharko du (notaren 7 punturako) eta ordenagailu praktiken froga bat egin beharko du maiatzaren 26an (notaren 3 punturako). Ikasleek honetan ez dute ebaluazio jarraituari uko egin behar.

II) EBALUAZIO FINALAREN SISTEMA

Azkeneko ebaluazioko sisteman azkeneko proba zati desberdinetan banatuta egongo da:

- 3 puntu ordenagailuko praktiken froga, maiatzaren 26an.
- 7 puntu ariketa eta teoria froga, maiatzaren 26an.

Kalifikazio finala bi frogen puntuazioen batura izango da.

Bi ebaluazio-sistemetan, azken proba idatzira ez aurkezteak kalifikazioan "Ez aurkeztua" lortzea suposatzen du, nahiz eta kurtsoan zehar planteatutako lanetan parte hartu izan.

III) EZ-OHIKO DEIALDIA

Posible baldin bada, azterketa finala ez ohiko deialdian era presentzian izango da. Egoera kontuan izanda, posible ez bada eta UPV/EHUK horrela eskatu ez gero, aukera berria proposatuko da, adibidez online izanda. Azken proba idatzira ez aurkezteak kalifikazioan "Ez aurkeztua" lortzea suposatzen du.

4. OHIKO ETA EZ-OHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

Dugun egoera berezia kontutan hartuta, geratzen diren ebaluazioa ezingo da era presentzian egin eta modu ez-presentzian egingo da. Frogaren bat era presentzian egin badaiteke, ikasleei denborarekin jakinaraziz. Beraz, ebaluazio ez-presentzial hau nola egingo den deskribatzen da jarraian.

Arazoren bat badute ikasleek online klaseak, tutoretzak edo azterketak jarraitzeko, baliabideak eskura jarriko ditu unibertsitateak. Hau baldin bada zure kasua, mesedez, kontaktuan jarri ikasleen errektoreordetzara viceralumnado@ehu.eus arazoaren deskripzio batekin eta irakasleari jakinarazi.

Ordenagailu praktiken ebaluazio frogak, taldeka edo indibidualki egingo diren lan eta ariketetan burutuko da.

Frogak edo azterketak teoria ariketek eta problemek osatuko dituzte. Froga hauek, sesio ezberdinetan egingo dira, bata bestearen ostean. Sesio bakoitzean ariketa edo problema bat eginez eta denbora mugatuz. Ariketa hauek berdinak edo ezberdinak izan daitezke ikasle bakoitzarentzat. Sesio bakoitzean Egela, BlackBoard Collaborate edo posta elektronikoz ariketa edo problema planteatuko da, eta ikasleak indibidualki paperean egin beharko du mugatutako denboran. Denbora bukatzerakoan ikasle bakoitzak posta elektronikoz edo Egelatik bidaliko du egindako lana, ebaluatua izan dadin. Prozesu hau sesio bakoitzean errepikatuko da.

Ikasleren batek konexio arazoren bat badu frogak gertatu bitartean, telefono zenbaki bat eskura izango du arazoaren berri emateko. Ez bada arazoa konpontzen, froga telefonikoki egingo da edo beste egun batean.

Azterketen berrikusketa telefonoz edo BlackBoard Collaborate bidez egingo da.